

***In memoriam.* Txillardegi**

(Jose Luis Alvarez Enparantza)

Donostia, 1929 - 2012

Jokin Apalategi Begiristain
***Uztaro* aldizkariaren zuzendaria**

«En faisant l'Etat, (les juristes), ont fait, non pas la nation, mais les conditions sociales de production de la nation... Il faudrait aussi rappeler le rôle de l'école et de l'armée» P. Bourdieu (2012): *Sur l'Etat*, Ed. Raisons d'agir/Seuil, Paris, 551-552.

Jose Luisek esaldi sakon bezain zorrotz hori bere egina zuela dirudi, Ekin ikasle-taldearen sorreran esku hartu zuenetik (Julen Madariaga, Jose Manuel Agirre, Jose Maria Benito del Valle, David Lopez Dorronsoro eta Ene Irigarairekin batera), eta, EAJrekin hautsi ondoren, Ekin-ekoek ETA talde guztiz independentea sortu zutenetik, alegia.

Zeren, zer da, nazioaren ordura arteko sabindar interpretaziotik ihesi, euskal naziotasun modernoa eraikitzekean euren etsenpluarekin praktikara eramandako euskararen pentsamendu berria? Ez dago zalantzarik. Hainbat eta hainbat testu eta keinu dago, beti koherenteki ideia eta jarrera berberak defendatzeko. Nik neuk aukera bat egin dut, Jose Luisen ahotik eta lumatik jalgitakoak erabiliz, *in memoriam* hau ilustratzeko.

Baionako Euskal Astearen kariatara, 1970eko uztailaren 4an eman zuen hitzaldia, gero *Branka* aldizkariaren 12. zenbakian argitaratu zuena, jarraituko dut hemen nagusiki. «Guk geure modura konpondu behar ditugu geure arazoak. Dударik ez da honetan. Eta ezin diteke ezer kanpotik bere hartan har, eta gure herrian landa. Horrela jokatzuz, landareak ez luke itsatsiko; aldiz, laister eihartuko litzake» oharrarekin hasten da. Eta jarraian egitera doana justifikatzeko, beste aipaldi hau plazaratzen du: «Hori egia izanagatik ere, ba dago kanpoan zer ikasirik, gure hizkuntzaren egoera eta herriaren beraren egoera, zenbait aldetatik

bederen, leku askotan geratu bai dira». Konparazio-metodoa hartu eta justifikaturik, euskal hizkuntza-pizkundearen norabidean jarraitu beharreko arauak aipatuko dizkigu. Zeintzuk hautatu zituen guretzat konparazio positibotzat? «Hiru hizkuntza-pizkunderen gorabeherak eta geureak alderatuko ditut nik hemen laburzki: Finlandiakoa, Txekoslovakia eta Israelgoa. Beste batzuk ere ikutuko ditut batzutan».

Oraindano adierazitakoaz analisi zehatz bezain ebaluatzailea eginez gero, zenbait ondorio atera zituen.

1. «Hizkuntzaren pizkundera, politika estrukturalen aldaketaren aurretik etortzen da»

Jose Luisek euskararen pizkundera jarri zuen ardura kementsuak ez du ezbaierik. Gogora dezagun, hasteko, hamazazpi urterekin ez zekiela euskararik; eta, aldiz, hogeita zortzirekin, euskal literaturan aro berria deitu dena ireki zuela, *Letuariaren egunkari ezkutua* eleberria argitaratzean. Urte berean, Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen, egiten ari zen lan eskergagatik. Hala ere, bidenabar esan dezagun, Euskaltzaindia Jose Luisentzat «arantza» bilalatu zen luzera, zeren, behin eta berriz, hirutan, bere «osoko» kide ezagutzea ukatu baitzion. «Euskara batua» bultzatzen ere jardungo du. Bidekari lankide izango ditu, besteak beste, K. Mitxelena eta F. Krutwig. 1965ean, euskara baturako arauak argitaratu ditu; eta, 1968an, Arantzazuko biltzarrean, Euskaltzaindiak gehienbat bere ere egiten ditu. Handik gutxira, nik neuk, 1969an, Parisko Euskal Etxean, Leizaola lehendakariaren aitzinean, K. Mitxelena «euskara batu» horren defentsa sutua egiten ikusi eta entzun nuen, euskal unibertsitari batek EAJ salatu zuenean «euskara batuaren» aurka zebilelako; K. Mitxelenak hitza eskatu eta ihardetsi zion, esanez, berak zekienez, bota ez bazuten behintzat, EAJkoa zela eta «euskara batuaren» aldekoa zela. Nik neuk orobat ikusi eta entzun nuen Antwerpengo etxean F. Krutwig, «euskara batu» horren aurkako kritika egiten; 1975ean, Maite Idirinekin Iparraldeko ikastolen alde Flandrian egiten zen kantaldira joanik, amaitzean, hurrengo egunerako bere etxean bazkaltzeko gonbitea luzatu zigun. Modu eta giro ederrenean euskal kulturako berriak komentatzen ari ginela, «euskara batua» egiten zihoan bide lasterra aipatu genuen; F. Krutwigek, hori entzutean, bat-batean sutan jarrita, esan zigun «euskara batua» (Lapurdikoa klasikoen ereduak, berak proposatzen zuena) atzeraka ari zela, «euskara txillardegianoak» aurre hartu ziolako.

2. «Helburu beti berbera izan arren, bultzadak egoeraren arabera izan behar dute»

Orduko gure eginkizuna barneko ereintza zela, eta «herri-esnaera» deitu zitekeela zioen. Euskal nahiaren indarra metatu behar zela, alegia. Garai hartako egoeran, zioen, gaur egun gatazkaren irteerarako ezinbesteko garrantzia hartu duen kanpoko interbentzioa eskatzeko ordua ez zela heldua. «Kanpoko agintaritzak behartzen hasi baino lehenago, geure burua gotortu behar dugu. Gaur ez da kanpoko hartu-emanetarako aroa; ereintza-aroa, esnaera-aroa eta hizkuntza-aroa baizik». Horretan ere arrazoi zuen, noski. Aieten euskal gatazka gaintzeko egindako Nazioarteko Ordezkarien Batzarreko berriak, aldiz, poz itzela emango ziola pentsatzen dut.

3. «Askatasuna izanagatik ere, gramatika soil batek ez du deusik konponduko»

Zertara dator aipaldi hau? Min egiten zion, nazionalismo sabindarrean, egitura politikoa eskuratzeko ahaleginetan, hizkuntza eta kultura gutxituak zirela konstatasteak. Askatasun politikoa lortuko dugun unetik, gramatika bat eskuan harturik, mundu osoa euskaldunduko dugula dioen esamesa, alegia. Ihardespena ozena da: «Kondairak besterik erakusten du. Berriz diot: politika-askatasuna ez dela hizkuntza-pizkundearen ama, hizkuntza-pizkundearen alaba baizik. Hau garbi agertzen da, itzuletara, herrien beherakoan: lehenago galtzen da askatasuna hizkuntza baino. Bidezkoa da beraz, alderantziz, herrien gorakoan ere, lehenago hizkuntza irabaztea, askatasuna baino». Eta «gramatika» arloan ere ez zen Jose Luis lo egon. Zazpi liburuki utzi dizkigu hizkuntzalaritzari eskainiak: *Euskara batua zertan den*, 1974, Jakin; *Fonologiaren matematikuntza*, 1978, UEU; *Euskal Gramatika*, 1978, Ediciones Vascas; *Euskal fonologia*, 1980, Arg. Egilea; *Euskal dialektologia*, 1983, Arg. Egilea; *Euskal azentuaz*, 1984, Elkar; *Elebidun gizartearen azterketa matematikoa*, 1984, UEU.

4. «Politikazko bideak itxita egon direnean, bertako abertzaleek (baita beste egoeratan kanpo-politika lanetan murgiltzen zirenek berek) hizkuntza, kondaira, eta nazio-jakintzako lanak bultzatu izan dituzte»

Honekin adierazten digu estruktura-aldaketak lortu baino lehenago ere nazio gisa jokatzeko ahal dela, eta behar dela. Egia da Estatuak nazioa egiteko mekanismo eta baldintza bermeak dakartzala, eta horregatik, eta ez beste ezerengatik, desiratzen dute nazio zapalduak erakunde hori. Erakunde hori ez duten nazioak, nahiz beste Estatu demokratiko batzuen gerizan egon, euren erabaki-hartzeak egiteko eta beharrezko kontsideratzen dituzten bermeak eskuratzeko baimenik ez duten bitartean, ez daude demokratikoki artatuak. Hori da Euskal Herriaren kasua. Honi loturik, lau eginkizun nagusi ikusi uste zituen gure egoera honetan.

4.1. Ikastolak

«Zalantzarik gabe esan ditekeala uste dut, azken urteotako lanik inportantenetako bat ikastolen bidez egiten ari dela. Ba dakit, eta ba dakigu denok, ikastola horietan akats asko dagoela. Euskararen egoera eta mugak ongi ezagutzen ditugunok, inork baino hobeki neurtzen dugu, nik uste, andereñoen lana zein den zaila, eta merezimendua zein duten haundia... Bihotz bihotzez txalotu nahi ditut nik hemen andereño guziak, gurea erakastea bait da hain zuzen, eta ez inportazioko eskematan usteltzea. Gauza bat da zaharra eta kiratsa Euskal Herrian: eskubi aldetik eta ezker aldetik gure hizkuntzaren kontra egiten den lana! On litzake andereñoen hezikera ontzea. Dударik gabe. Beharrezkoa da, hitz kontuan eta liburu kontuan, askoz aurrerago joatea. Dударik ez. Bata eta bestea, ordea, andereño ez garenon eskuetan dago. Bete dezagun guk geure betebeharra, berek berena bezain ongi; eta kritikatzeko hasteko aitzakia eta eskubidea izango dugu. Laguntza guzia, beraz, andereñoei; andereñoen eskuetan bait dago hein batetan Euskal Herriaren etorkizuna». Ikastolen defentsa sutsu hau etxetik hasi zen, Jone Forcada, bere emaztea, Iparraldeko ikastoletan hainbat urtez andereño izan baitzen. Ikastoletarako materialak euskaratzen ere saiatu zen.

4.2. Hezkuntza-sistema bururaino euskaraz

Ingeniari ikasketen ondorio, lehen lanbide profesionalak arlo horretakoak izan bazituen ere, 1976an, Jose Luis Sorbonara doa hizkuntzalaritza ikasketak burutzera. Hala ere, ordurako Bordele III Unibertsitatean euskara irakurle izana zen. UEUk Iparraldean udaretan euskarazko unibertsitate iraskaskuntzak abian eman zituen lehen unetik ere partaide izan zen. Baina orain, gainera, garbi zegoen gelditzen zitzaion bizitza euskara zientzia egiteko prestatzen eta unibertsitate-rainoko hezkuntza-sistema euskalduntzen erabili nahi zuela. Deustun lehenik eta UPV/EHU-n ondotik, irakasle izan zen. «Euskara ez bait dago gertu kultura-tresna izateko, ez lizeoetan ikas-tresna izateko, ezta ikastoletan beretan ere batzutan». Are gutxiago unibertsitaterako, noski. Bestalde, badaki erresistentziak daudela euskaltzaleen artetik ere bide horretan. «Harrigarria da, beraz, azkeneko hila-beteetan gertatzen ari den fenomeno. Alegia: euskara folklore-jazkera gisa erabil-tzetik ateratzen jakin ez dutenek, eman diren pausu guziak (Baionakoak, Aran-tzazukoak berak) kondentatzen dituztela. Eta erderaz kondentatu! Zer proposatzen digute egindakoaren orde? Egonean egotea. Politikan egonean egotea orain dela 34 urte proposatzen ziguten bezela». Traba horiek gainditzeko itxaropen osoa du bere baitan eta «gure gaztedia eta intelektualetan batez ere, bururaino joango dira euskararen batasunean eta prestaeran».

Artikulugile joria agertuko zaigu. Horrela, *Euskera*, *Euzko Gogo*, *Egan*, *Branka*, *Zutik*, *Jakin*, *Eusko Lurra*, *Herria*, *Enbata*, *Zabal* aldizkarietan lanak argitaratuko ditu. *Bat* soziolinguistika aldizkariaren zuzendari izango da 1992tik 2002ra. *Uztaro*, *giza eta gizarte-zientzien aldizkarian* Batzorde Zientifikoko kide izan dugu. Eta hainbat saio argitaratuko ditu euskara eta euskarazko kultura landuz: *Huntaz eta hartaz*, 1965; *Goiztiri*. Berrargitalpena: Elkar, 1983; *Sustrai bila*. *Zenbait euskal koropilo*, 1970, Irakur Saila; *Hizkuntza eta pentsakera*, 1972, Gero-Mensajero; *Oinarri bila*, 1977, Egilea editore; *Euskal Herritik erdal herrietara*, 1978, Egilea editore; *Euskal gramatika*, 1978, UEU; *Euskal kulturaren zapalketa 1956-1981*, 1984, Elkar; *Soziolinguistika matematikoa*, 1994, UEU, Xabier Isasi-rekin elkarlanean; *Euskal Herria helburu*, 1994, Txalaparta; *Lingua Navarrorum*, 1996, Orain; *Euskararen aldeko borrokan*, 2004, Elkar.

4.3. Alfabetatze-lanak

«Euskalkietatik euskarara pasa arte, euskarak ez du balio ez elkar ulertzeko, eta ez kultura-bide izateko». Gogoeta sentitua eginarazten zion gure herriaren egoera analfabetoak. Euskara bai, baina hizkuntzak ez du izan behar euskaldunentzako trababide bat, edo kulturarekiko hesi bat, elkarrekiko mintzabide eta kultura-lokarri bat baizik. Alfabetatzen ari da jendea, baina zer irakurriko dute gizajo horiek? Zer pentsatuko dute euskarari buruz, elkar nekez ulertzen badute? Irratia edo antzerkia nekez aditzen baldin badute? Galdera horiei ihardesteko, literaturan pentsatzen du. «Hitz batez, euskara gure herriaren zerbitzari izatea, euskal literaturaren izanean datza. Gure batasun-gintzan, gramatika-gintzan eta hiztegi-gintzan ari garen artean, euskaldun jendeari traba zaio euskara (eta ez dezagun ahantz legearen aldetik ere traba zaiola eta, kondairak erakusten duenez, zenbait urtez bederen izango ere zaiola)». Eleberrigintza bera gure herriaren

zerbitzari izateko. Eta, horrela, Jose Luisen eleberrigintza ez zen behin ere agortu; gogoratu ditzagun argitaraturiko lanak: *Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957, Euskaltzaindia. Berrargitalpenak: Leopoldo Zugaza, 1977, eta Elkar, 1983; *Elsa Scheelen*, 1969, Lur. Berrargitalpena: Elkar, 1978; *Peru Leartzako*, 1960, Itxaropena. Berrargitalpena: Elkar, 1979; *Haizeaz bestaldetik*, 1979, Egilea Editore. Berrargitalpena: Elkar, 1988; *Kosmodromo*, Haranburu, 1984; *Exkixu*, 1988, Elkar; *Putzu*, 1999, Elkar; *Labartzari agur*, 2005, Elkar.

5. «Herri guzietako ezkerkoiek (ez bai ditut “ezkertar” deitu nahi) nazio- hizkuntza gutxiaren kontra jokatu izan dute. Eginkizun horretan “chauvinisme petit bourgeois” besterik ez ikusiz»

ETAren baitan klase-borrokarako paradigmatikoa sartu zirenean, Jose Luisek beldur izan zuen euskal naziotasun modernoaren aldeko dinamika klase-dinamikaren menpe itoko ez ote zen. Guk geuk *Marxismoa eta nazional arazoak Euskal Herrian* idatzi genuenean, arazo horri erantzun nahi izan genion, euskal nazio-borroka eta klase-borroka uztartu nahirik, bietarik bat bestearen menpe jarri gabe. Simone de Beauvoir-ek, bere *Le deuxième sexe* liburuan, klase-borrokaren dinamika sendoa zen herrietako emakume-mugimenduentzat autonomia eskatzen zuen. Horrekin adierazten zuen emakume-askatasunen aldeko borroka inolaz ere ez zela klase-borrokaren menperatuen garaipena helduko denerako utzi behar. Zeren Jose Luisek sozialismoa errebindikatzeko zuen bere jarrera politikotzat. ETA erakundearen V. Batzarraren lehen partean egon zen zatiketaren ondorio, bost ezkertar abertzalek (Edur Arregi, J.J. Etxabe, Emilio Lopez, Julen Madariaga eta F. Krutwig) Euskal Herriari igorritako Agiria *Brankako* irakurleei xeheki irakur zezaten zabaltzea erabaki zuenean adierazitakoa dugu horren lekuko garbia: «Agiri hori bihotzez txalotzen dugu. Gu geu ere sozialista izanik, eta Euskadi Sozialista bat nahi dugula berriz adieraziz, ez dugu halaz ere inoiz onartuko atzeritar inperialismoa, are gutxiago jazkera “gorri” batez irents-arazi nahi zaigularik. Internazionalistak gara, burgesia internazionala delako. Sozialismoa bilatzen duten guzien anaiak eta burrukakideak gara. Dударik ez. Eta internazionalistak garelako kondenatzen dugu Euskal Herriaren kontrako inperialismoa. Gu euskaldun sozialistak gara».

6. Agur, ez adiorik!

Hala ere, ohar bibliografiko orokor bat egin gabe ez noa azken agurra aire-ratzera. Euskararen soziografia, soziologia, gramatika, fonologia, dialektologia, azentua, doinua, erritmoa, kolorea, formak eta dimentsio matematikoa bera ere aztertu zizkigun euskararen pentsamendu berria distiratsua eta erakargarriago egiteko. Horri gehitu behar diogu ere hurbileko kondaira lokalaren zainketa: *Antigua 1900*, 1991, Kutxa; *Santa Klara, gure uharte ezezaguna*, 2004, Kutxa, liburuak dauzkate gogoan. Ez ditzagun ahan-tzi erruz argitaratu zituela ere, kazetaritza artikuluak, itzulpenak eta ponentzia zientifikoak, horiekin frogatuz euskara balioko zela filosofatzeko bezala giza eta gizarte-zientzietan konplexu gabe jarduteko. Azken urte hauetan Jose Luis berbera ikerketa gai bihurtu zen. Plazan aurkitzen dira hainbat lan individual edo kolektibo.

Jose Luis agurtzekoan, hitz ematen ahal diogu, berak landu eta dinamizatu zuen euskal naziotasun modernoaren pentsakera gaur Euskal Herria gerizatzen duten Estatu juridikoen (“ez eskubidezkoak” deitu ohi direnez) jabetzazko mekanismoen aurka defendatzen jarraituko dugula giza eta gizarte-zientzietatik, euskal borondate orokorrari dagokion zuzena eta justizia egin arte.

